



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.


ZIURTATZEN DUT: Udalbatza Osoak bi mila hogeita bateko martxoaren hogeita hiruan, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

2021EKO UDALAREN AURREKONTUAN 2. ZENBAKIA DUEN KREDITU ALDAKETA ONARTZEKO, KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ.

Udalaren 2021eko Aurrekontu Propioaren barruan kreditu gehigarrien bidez, kreditu Aldaketa 2 zk.ko espedienteari dagokionez:

2021 urteari begira Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da zenbait gastu berehala egitea. Horiek aurrera eramateko 3.593.000 euroko kreditu aldaketa proposatu nahi da, kreditu gehigarri bitartez.

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0900.211.920.00.01 2021	UDAL ERAIK.MANTENTZEA	150.000,00	120.000,00	270.000,00
1 0201.227.151.00.03 2021	IXOSTENAK ETA ZARATA NEURTZEA	12.000,00	20.000,00	32.000,00
1 0202.227.170.00.07 2021	AZTERKETAK ETA PROIEKTUAK,INGURUMENA	66.000,00	45.000,00	111.000,00
1 1100.480.430.00.01 2021	TRANSF.ARR.IND.MERK.ETA TURISMOA	66.906,00	60.000,00	126.906,00
1 1100.471.241.00.02 2021	TRANSF.ARR.,LEHEN SEKT.ETA MERK.SUST.	100.000,00	100.000,00	200.000,00
1 1000.226.912.00.04 2021	AUZARAZA	30.000,00	175.000,00	205.000,00
1 0401.481.334.00.02 2021	TRANSF.ARRUNT.MUSIKA ESKOLA	80.400,00	6.000,00	86.400,00
1 0900.210.171.00.01 2021	PARKE ETA LORATEGIAK MANTENTZEA	220.000,00	100.000,00	320.000,00
1 0201.601.153.20.04 2021	ARATZ-ERREKA URBANIZAZIOA	0,00	152.000,00	152.000,00
1 0201.622.335.00.02 2021	PEREZ ARREGI I ERABERRITZEA	0,00	405.000,00	405.000,00
1 0201.622.333.00.02 2021	SOREASU, SOINUAREN EREMUA	100.000,00	465.000,00	565.000,00
1 0201.601.153.20.07 2021	MATXINADA KALEA ETA ZUBIA	140.000,00	40.000,00	180.000,00
1 0201.601.153.20.03 2021	GARMENDI 9-13	90.000,00	252.000,00	342.000,00



1 1000.471.311.00.01 2021	COVID-19 MERKATARITZA ETA OSTAL.	0,00	130.000,00	130.000,00
1 0201.601.153.20.10 2021	LOIOLAKO ETORB.34-36 URB.	0,00	371.000,00	371.000,00
1 0201.601.153.20.06 2021	SANJUANDEGIKO URBANIZAZIOA	0,00	450.000,00	450.000,00
1 0201.622.342.00.03 2021	KIROL INSTALAZIOAK	75.000,00	150.000,00	225.000,00
1 1300.601.414.00.01 2021	BASERRI BIDEAK	120.000,00	80.000,00	200.000,00
1 0200.733.152.10.01 2021	AZPETIA BERRITZEN ETXEBIZITZAK	0,00	400.000,00	400.000,00
1 0202.200.170.00.01 2021	LURREN ALOKATURUA	0,00	6.000,00	6.000,00
1 0201.622.920.00.02 2021	UDAL-ERAIKUNTZAK	100.000,00	46.000,00	146.000,00
1 0600.201.231.00.01 2021	LOKAL ETA ETXEBIZITZA ALOKATZEA	78.500,00	16.000,00	94.500,00
1 0600.211.231.00.01 2021	ETXEBIZITZA BABESTUAK MANTENTZEA	1.000,00	2.000,00	3.000,00
1 0600.221.231.00.01 2021	ETXEBIZITZA BABESTUEN HORNIDURA	5.500,00	2.000,00	7.500,00
	GUZTIRA	1.435.306,00	3.593.000,00	5.028.306,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2021	G.O.DIRUZAINITZA GERAKINA.	3.593.000,00
		FINANTZAKETA GUZTIRA	3.593.000,00



Azpeitiko Udala

IDAZKARITZA

Proposamenaren inguruan Udalaren Kontu-hartzaileak honako hau dioen txostena egin du:

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.



Azpeitiko Udala

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso- osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, Alkatearen proposamenen espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikulua arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekursoei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Modu berean, Udalaren Kontu-hartzaileak aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburua eta gastu araua betetzeari buruzko txostena egin du, eta ondorioztu da toki entitate honek ez duela gainditu 2021 ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita. Beraz, ez du 9/2020 FDaren 1.4 artikulua aurreikusitako plan ekonomiko finantzariorik egin behar (txostenaren edukia espedientearen jaso da).

Eta kontuan izanik aldekoa dela Ogasun eta Langileria alorreko batzorde berriemaileak emandako irizpena, Udalbatza Osoak, bertaratutakoek aho batez hartutako erabakiarekin ONARTU EGIN DA:

Udalaren 2021eko Aurrekontu Propioaren barruan Kreditu Aldaketa 2 zk.ko espedientea, kreditu gehigarrien bidez.

*Azalpen atalean jaso da proposamenaren edukia.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetz, jendaurrean ikusgai jarriko da espedientea hamabost laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta ondorengo lanegunetik aurrera, epe horretan aztertu eta egoki iritzitako Udal Batzarrari erreklamazioak jarri ahal izateko.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkatearen on iritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita bateko apirilaren zortzian.

O.E.
ALKATEA,



